


Eusko Ikaskuntzak Karlos Santamaria matematiko, idazle eta pentsalariari omenaldia eskaini zion atzo eguerdian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jauregian, Manuel Lekuona Saria 1991 eskuratzeko antolatutako ekitaldiaren barne.



CARIOS VILLAGRAN

Datu biografiko batzuk

Karlos Santamaria Ansa 1909ko abenduaren 25ean jaio zen Donostian. Zientzia Zehatzak ikasi zituen Madrilén, eta 1931n doktoratu ondano arlo honetako ikerketa lanetan aritu izan zen.

Baina zientziaren arlotik aparte ere lan ugari egin da Santamaria. Bakearen aldeko 'Pax Christi' mugimenduko idazkari nagusi 1958tik 1966ra bitartean, Gipuzkoako Unibertsitatearen Batzorde Eragileko kide 1964ean, Eusko Kontseilu Orokorreko hezkuntz kontseilari 1978tik 1980era bitartean, 'Argia' eta 'Jakin' aldizkariaren bultzatzaile eta laguntzaile, euskaltzain urgazle 1963az geroztik...

Liburuak ere ugari idatzi izan ditu Santamariak, gaztelaz, euskaraz, frantsesez eta ingelesez: 'Jacques Maritain y la polémica del bien común', 'Espiritualidad y política', 'L'Etat idéal', 'Eusko Ikaskuntza eta matematika zientzia', 'In search of a Concept of Peace'...

Manuel Lekuona Saria jaso du Karlos Santamariak

JUAN LUIS ZABALA / DONOSTIA

Eusko Ikaskuntzako Gipuzkoako lehendakariorde den Jose Luis Orella irakaslearengandik jaso zuen Karlos Santamariak, Remigio Mendiburuk egindako brontzezko eskultura, Manuel Lekuona Sariaren oroigarri moduan.

Edorta Kortádi, Eusko Ikaskuntzako idazkari nagusia izan zen ekitaldiaren aurkezle. Iñaki Barriola eta Joxe Azurmendi, elkarteko bazkideak, eta Jose Luis Orellak Gipuzkoako lehendakariordeak Santamariaren lana eta izaera goraiatzeko

hitza eman egin zuten. Imanol Murua ere, Gipuzkoako diputadu nagusia, partaide izan zen omenaldi honetan.

Omeneko ekitaldiaren amaieran, Karlos Santamariak berak hartu zuen hitza, Eusko Ikaskuntzari, eta bereziki atzo hizlari izan zirenei eskerrak emateko; Eusko Ikaskuntzako bazkide egin zeneko garaia gogoratu, eta elkarte honek euskal kulturaren zerbitzuan egindako lan eskerga goraiatu zuen ondoren.


Santo Tomas Lizeoko koroko umeek, txistulariek eta dantzariak Santamariaren omeneko ekitaldia eskaini zuten atzoko ekitaldian, ida-



zle eta pentsalari donostiarra ikas-texetxe horren sortzaileatariko bat dela gogoratu.

Eusko Ikaskuntzak, 1983tik hasita, urtero eskaintzen dio Manuel Lekuona Saria euskal kulturaren aldeko lanarengatik nabarmendutako pertsonaia bati, eta ia zoko abenduaren 15ean aurtengoa Karlos Santamariari eskaintzea erabaki zuen.

Ez da Manuel Lekuona Saria Karlos Santamariak hilabete honetan jasoko duen bakarra. Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Urrezko Domina emango bait dio, horretarako antolatutako ekitaldi berezian, datorren martxoaren 27an.



Filosofia pertsonalista euskal kulturari lotuta

JOXE AZURMENDI idazle eta irakaslearen ustez, Karlos Santamariaren lanak bi alderditan bana daitezke: pentsalariarena eta ekintzailearena.

Pentsalari gisa, 'Argia', 'El Diario Vasco', Barcelonako 'El Ciervo' eta beste hainbat aldizkari eta egunkaritan azaldu izan ditu neurri laburreko lanak; arnas handiagokoak, berriz, 'Jakin' aldizkarian eta hitzaldi eta liburu ugarietan erakutsi izan ditu.

'Pax Christi' bakearen aldeko

mugimendu internazionalaren zuzendari orokorra izan zenean, Europako intelektual katolikorik interesgarrien ondoan aritu izan zen elkarlanean, garrantzi handiko hitzaldi eta kongresuetan parte hartuz: François Mauriac idazle bordeldarra, Giorgio La Pira Fiorenziako alkate eta filosofoiako irakasle sonatua, Paul Claudel, Gabriel Marcel...

Ekintzaile gisa, ezin ahaztu du Azurmendik Karlos Santamariak ikastolen sorreraren garaian egin

zuen lana eta izan zuen eragina. Zehazki, Santo Tomas Lizeoaren sortzailea izan zen, Jose Miguel Zumalabe eta Koldo Mitxelenerekin batera. Lehenengo ikastola hiztegia sortzen parte hartu zuen gero, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen sorreraren aldeko lanean ere gogor aritu zen, ez bakarrik Eusko Kontseilu Orokorreko hezkuntz kontseilari izendatu zutenean askoz lehenagotik baizik. «Santamariak sortuak dira Donostiako fakultaterik gehienak».

Santamariaren pentsamenduak filosofia pertsonalistaren bidetik jo izan du. Emmanuel Mounier eta Jacques Maritain-ek sortutako filosofia honek pertsonaren baitan kokatzen du bere ikuspuntuaren gune nagusia. «Sistema itxiak bilatzen dituzten filosofia orohartzzaile klasikoekin kontrako bidetik, gune nagusiztat pertsona hartzen du pertsonalismoak», adierazi digu Azurmendik.

Pertsona historiaren menpekotzat hartu beharrean, historiaren pertsonaren menpe kokatzen du pertsonalismoak. Eta era berean jokatzen du nazioa eta esta-

tuaren arteko harremanetan ere: estatuak nazioaren zerbitzuan behar du, eta ez alderantziz.

Filosofia pertsonalistak Euskal Herrian oso eragin handia izan duela gogorazi digu Joxe Azurmendik. «Gerra aurretik ere nabari da eragin hori, baina batez ere gerra ostean hartuko du indarra». Jose Maria Arizmendi-rietak bultzatutako Arrasateko kooperatibismoak ere filosofia pertsonalista du abiapuntutzat; ELA sindikatuek eta Pierre Lafitteren inguruko 'Aitzina' mugimenduar ere korronte honen eraginpean sortuak dira.

«Hala ere, Euskal Herrian, inork ez du pertsonalismoa espreski Santamariak adina gartatu», Azurmendiren ustez. «Santamariak gogoeta politikoari aplikatu izan dio beti pertsonalismoa, euskal kulturaren arazoari batez ere, eta Euskal Herriko nazio arazoa ikuspegi pertsonalistatik aztertu izan du».

Erresistentzia intelektualean gogor aritu zen Karlos Santamaria gerra ondorenean. Horren erakusgarri, 'La Croix' aldizkariako idatzitako lanak aipatu dizkigu Azurmendik. Frankismorik la-

zuzenaren garaian, «Euskal Herriko korrespondentsal ixilpekoa izan zen Santamaria Frantziako 'La Croix' aldizkarian. A. Mayoz izenordearekin sinaturik, Euskal Herriko kontuen berri ematen zuten artikuluek argitaratu zituen aldizkari horretan».

Bestalde, 1947 eta 1958 bitartean, frankismoaren kontrol estutik ihes egiten zuen foro bakarren antolatzaile eta zuzendari izan zen Santamaria: 'Conversaciones católicas internacionales de San Sebastián' izeneko solasaldiak. 'Documentos' izeneko koadernoetan argitaratzen ziren nazioarteko pentsalari katolikorik garrantzitsuenen partaidetzarik inoiz osatutako solasaldi hainak. Azurmendiren eritziz, «oasi bat osatzen zuten elkarriketa hain garai estu eta ilun haietan».

Karlos Santamariak beti bere erreferentzia nagusi izan dituen aipatu digu azkenik Azurmendik: «Bakea eta askatasuna. Hala ere, du inoiz agintearen menpekoan kean sinistu, eta pazifismo absolutistaren kontrako eritziak azaldu izan ditu, «agintzen duenaren menpean egotera bultzatu besterik egiten ez duelakoan».